

Etxez Etxeko Zerbitzuaren Arautegia

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak azken urte hauetan jarraitu duen prozesuak, kontuan izanik lortu duen ebaluazio eta esperientzia, beharrezko egiten du Zerbitzuaren prestazioaren erregulazioa.

I. KAPITULUA

EBAZPEN OROKORRAK

1. artikulua.Arautegiaren Xedea.

Arautegi honen xedea da Pasaiaiko Herrian Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua prestatzea.

2. artikulua.Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua definitzea.

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua izaera soziala duen Zerbitzu komunitarioa da, laguntza indibidualizatua ematen du maila prebentiboan, hezkuntzarenean eta familiei edota pertsona bakarrei asistentzia emanez, hauek zailtasunen bat badute beren ongizate fisikoa eta soziala mantentzeko, honela beren etxean edo inguruan bizitzea bideratuz ahal den eta komeni den neurrian.

Labur esanda, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak eguneroko lanak egiteko gai ez diren pertsonen autonomia falta beteko du. Erabiltzailearen etxean bertan ematen da eta modu pertsonal eta/edo domestikoan prestatzen da.

3. artikulua.Helburuak.

a)Gorabehera sozialak edota ezgaitasunagatik eta bereziki bakarrik eta laguntzarik gabe bizi direlako beren independentzia pertsonala mugatua duten pertsonen isolamendua edo/eta abandonuaren arriskua ekidin eta prebenitzea.

b)Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren apoioaren bidez erabiltzaileak berez egin ezin duena erraztea, bere gaitasunak garatu eta estimulatuz.

c)Erakunde edo zentroetara joatea nahi ez duten pertsonen ingresoa ekiditea edo atzeratzea edota ingresoa beharrezkotzat eta komenigarri kontsideratzen ez denean.

d)Pertsona edo familiaren eboluziorako osasuntsuak ez liratekeen portaerak sortzen dituzten ohiturak zuzentzea.

e)Beren limitazioagatik laguntza hau gabe beren autonomiaren eskubidea baliatu ezin dutenak errespetatzea.

f)Erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzea beren autonomia, segurtasuna eta harreman sozialak potentziatuz.

g)Familiaren lana osatzea, familiak (arrazoi justifikatuekin) egoki erantzun ezin dienean erabiltzailearen behar guztiei.

4. artikulua.Jestioa.

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua zuzeneko nahiz zeharkako jestioz prestatu ahalko da kontzesio administratiboaren figura bidez.

Udala da Programaren funtzionamenduaren arduradun zuzena eta erabiltzailearen hautaketa egiteko, Zerbitzuaren funtzionamendurako, honen jarraipena egiteko eta kalitate-kontrolerako kriterioak jarriko ditu.

II. KAPITULUA

ELEMENTU PERTSONALAK

5. artikulua.Zerbitzuaren subjektuak.

Bertako subjektu bezala Zerbitzuaren prestazioan parte hartzen duten elementu pertsonalak hurrengoak dira:

—Gipuzkoako Foru Diputazioa.

—Pasaiaiko Udala.

—Onuradunak.

6. artikulua. Gipuzkoako Foru Diputazioari dagozkio hurrengo kompetentziak baliatzea:

Gizarte Zerbitzuen urriaren 8ko 5/1996 Legeko 11. artikuluan jasotzen direnak.

7. artikulua.Udal kompetentziak.

Pasaiaiko Udalari dagokio hurrengo kompetentziak baliatzea:

—Zerbitzua kudeatu eta exekutatzea.

—Zerbitzuarekiko behar munizipalak detektatzea.

—Zerbitzua finantzatzeko baliabideak koordinatzea.

—Erabiltzeari eman beharreko zerbitzuaren arta-maila eta intentsitatea erabakitzea.

—Onuradunen aportazio ekonomikoa zehaztea.

—Programa beste zerbitzu eta laguntza osagarriekin koordinatzea.

—Zerbitzuaren prestazio-demanda bideratzea, Zerbitzu Munizipalak atenditu behar dituen kasuetan.

8. artikulua.Asistente Sozialaren funtzioak.

Asistente Sozialak kontuan jasoko ditu Zerbitzuaren eskaera egiten duenaren aspektu guztiak (identifikazio-datuak, famili egoera, osasuna, ekonomia, etxebizitza, harreman sozialak, kultur maila ea.) Zerbitzuaren helburuari era zehatza emanaz hurrengo funtzioen bidez:

—Laguntza behar dutenen kasuak detektatu eta aztertzea.

—Familiaren erantzukizuna, balego, estimulatu eta bultzatzea, nola aspektu materialetan hala afektibo eta ekonomikoetan.

—Zerbitzuaren helburuak ezartzea.

—Zerbitzuaren arabera onuradunaren aportazio ekonomikoa proposatzea.

—Etxez Etxeko Langile arduradunari informazioa ematea kasuaren ezaugarrietaz Zerbitzuaren garapena abordatzeko pautak ezarriz.

—Zerbitzuaren garapenaren kontrol koantitatibo eta koalitativoa.

—Artatuekin harreman periodikoa, duten Zerbitzuaren estimulazioa jasoz.

—Gizarte Zerbitzuen Batzordeari informazioa ematea Zerbitzuaren inguruko intzidentzietaz eta dagozkion proposamenak debatitzeko eta onartzeko aurkeztea.

—Emango litzaizkiokeen besteak.

9. artikulua. Kontzesionarioaren betebeharrak.

Hurrengoak dira kontzesionarioaren betebeharrak:

a)Kontzesioaren objektua errespetatzea eta berari ezarritako mugak, Zerbitzua beharreko arretaz prestatzea, prestazio egokia beti bermatzea bai ikuspuntu material eta afektibotik baita hizkuntzarenetik ere.

b)Gizarte Zerbitzuen Departamenduak eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak emandako lan-ildoak betetzea.

c)Kontzesionarioak kontzesioak iraungo duen bitartean emango du Zerbitzua, eta sortutako gastuak eta tributuak bere kontura joango dira.

d)Besteak beste zirkunstantzia profesional, pertsonal eta beste batzuen bidez emandako kontzesioa denez ezingo da hirugarren bati transmititzea.

e)Zerga Industrialean, jarduera ekonomikoen zerga alta ematea, kontzesionarioari exijituz zerga honen matrikulan alta emanda egotea, eta baita dagozkion zerga eta tasa estatal, probintzial eta municipalak atenditzea ere. Zerbitzua betetzeko beharrezko pertsonala dela eta Gizarte Segurtasun eta Lan Prebisionan sortzen diren obligazioetan eguneratua egotea.

f)Zerbitzuaren prestazioaren esku jartzea beharrezko pertsonal guztia eta ausentziak, bajak eta egoki ordezkatzeko.

g)Zerbitzuaren funtzionamenduak sor ditzakeen kalteak hirugarrenei ordaintzea, Korporazioak nahitaezko izaeraz ezarritako klausularen bat betetzean izan ezik, erantzukizuna estaltzeko erantzukizun zibilaren poliza bat suskribatuko duelarik.

10. artikulua. Etxez Etxeko Laguntzailearen betebeharrak.

Etxez Etxeko Laguntzailearen betebeharrak dira:

—Onuradunaren artarako beharrezko eginkizunak burutzea, atentzio horretarako seinalatutako ordutegiak eta helburuak beteaz.

—Kontzesionarioari eta Asistente Sozialari informazioa ematea Zerbitzuaren funtzionamendu egokia aldatu edo afektatzen duten intzidentzia guztietaz.

—Gizarte Zerbitzuen Departamenduekin kolaboratzea onuradunen egoeraren jarraipena dela eta onuradunen bizi-kalitatean era negatiboan intzidituko duen zirkunstantzia berriren bat emango balitz.

11. artikulua. Zerbitzuaren onuraduna hautatzea.

Etxez Etxeko Udal Laguntzaren Zerbitzua eskatu ahalko dute beren autonomia pertsonala mugatua duten pertsonak eta familiak, beren segurtasuna murriztua dutenek, harreman sozialak okertuak dituztenek, eguneroko eginkizunak burutzeko eragozpenak dituztenek edo familiako norbaitentzat arazo psiko-familiarrak dituztenek eta ondorengo kolektiboren batean aurkitzen direnek:

—Hirugarren adinean. 65 urtetik gorako pertsonak.

—Elbarriek, murriztu psikikoen eta sentsorialeak. Ez elbarrituak direlako baizik eta gaitasunik ez dutelako.

—Gaixoen. Gaixotasunak edota lesioen batek jotakoak, hirugarren baten beharrean aurkitzen direlako.

—Arazo sozial nabarmenen bat duten familiak edo adinekoak, pertsonaren garapen egokirako bizi-ohitura txarrak dituztelako.

—Udalaren ustetan Zerbitzu honen beharra duten hiritar guztiek.

Betebeharrak:

- a) Pasaian erroldatuak egon baher dute eskaera baino gutxienez sei hilabete lehenago.
- b) Gizarte Zerbitzuen Departamenduak eskatutako dokumentazioa ekartzea, Arautegi honetako 12. artikuluan aipatzen dena.
- c) Udalak ezarritako prezio publikoa ordaintzea.
- d) Udal Gizarte Zerbitzuei jakinaraztea ekonomian, ezgaitasunean, bizikidetzan, aldakuntzaren bat emango balitz, laguntza-eskaera egin zuen datan baloratu zen egoerarekiko.
- e) Gizarte Zerbitzuei informatzea Zerbitzuaren funtzionamendu egokia aldatzeko duen edozein intzidentziaz.
- f) Etxez Etxeko Laguntzailearen esku jarriko dute esleitu zaizkion eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezko tresneria.

12. artikulua. Dokumentazioa eta izapidea.

Onuradunek hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- Famili unitatea osatzen dutenen NAN argazkiak.
- Prestazioko eginkizunak burutzeko ezgaitasuna duela dioen justifikante medikoa.
- Errolda eta bizikidetzaren ziurtagiria.
- Bizikidetzaren unitatearen sarreraren justifikanteak.
- * Sarreraren (soldatak, pentsioak, laminak, epe finkoak ea.) eta ondasunen ziurtagiria.
- * Azken Errenta Aitorpenaren fotokopia edota hau ezean Haziendaren Ziurtagiria esanez ez duela behar.
- * Foru Haziendak luzatutako ondasunen ziurtagiria.
- * Zerbitzuari esleitutako inportea hilero ordaintzeko diru-etxeari egindako aginduaren fotokopia.
- * Erabiltzailearen egoera ekonomikoan eragina luketen eta deduzitzekoak liratekeen gastuen justifikantea.
- Gizarte Zerbitzuen Departamenduak egokitzen ikusita eska dezakeen beste edozein dokumentazio.

III. KAPITULUA

ELEMENTU OBJEKTIBOAK

13. artikulua. Zerbitzuan sartzen diren prestazioak.

Zerbitzuak ematen dituen funtzioetan etxeko zereginetan laguntzea da nagusia eta erabiltzailearen arta eta garbitasuna. Ulertu behar da Zerbitzuak bere laguntza berez burutu ezin duen erabiltzaileari eman behar diola, artatuaren gaitasun propioak garatzen saiatuz.

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak hurrengo eginkizunak edo Zerbitzuak beteko ditu, beti ere Gizarte Zerbitzuen Departamenduak aurrez zehaztu ondoren:

A. Etxeko arreta-lan orokorrak:

- Etxe-bizitza garbitzea.

—Ohea egitea.

—Sukalde-bainuak garbitzea.

—Arropa garbitu eta lisatzea.

—Etxeko erosketak egitea Zerbitzuaren erabiltzailearen kargura. Horretarako, erabiltzaileak bezperan prestatuko du hurrengo egunean erosi beharreko gauzen zerrenda, laguntzaileak denborarik gal ez dezan.

—Etxean otorduak prestatzea eta garraiatzea, hau guztiz beharrezkoa balitz eta aurrekontuaren barruan sartutako giza medioekin posible izanik.

—Pertsonalki erabiltzeko den arropa erreparatu eta konpontzea (bonbila aldatzea, apalak sendotzea ea.).

B. Arta pertsonalak:

—Elikaduran laguntzea.

—Garbiketa pertsonalean laguntzea.

—Ohetik jaiki eta etzaten laguntzea.

—Eserlekutik altxatzen laguntzea.

—Jazten eta erazten laguntzea.

—Eskailerak igotzen eta jaisten laguntzea.

—Irteera laburretan laguntzea.

—Erabiltzaileari lagun egin, solastu eta komunikatzea.

—Dituen dietak kontrolatu eta jarraiaraztea.

—Izapide mediko xumeak kontrolatu eta jarraiaraztea.

—Ohean egon behar dutenekin:

—Izarak garbi edukitzea.

—Kubitu ultzerak prebenitzeko posturaz aldaraztea.

—Medikuaren agindupean, ultzerak edo zauriak dituztenei egunero sendakuntzak egitea.

C. Superbisio eta kontrola:

—Jestio elementalak egitea, hala nola pentsioak kobratzea, paguak helbideratzeko kontua irekitzea, etxean konponketaren bat egiteko teknikariari deitzea, ea.

—Erabiltzailearen ongizatea superbisatu eta kontrolatzea.

Medikazio xumea administratzea kontrolatu eta jarraitzea, hau medikuak seinalatua izanik, beti ere ez balego senide edo ahaiderik benetako bermez egiteko.

D. Beste zenbait:

—Ohitura egokiak hartzeko lan pedagogikoa, elikaduran, higieanean, ordutegian eta ohitura onak bultzatzeko.

—Etxea administratzeko jarraipen edukatiboa.

—Etxeko zereginak irakastea.

14. artikulua. Prestazio baztertuak.

Hurrengo zereginak baztertuak geratuko dira Etxez Etxeko Zerbitzuan:

- a) Kasua baloratzekoan sartu ez diren gainerako familiakoak edo ahaideei atenditzea, erabiltzailea pertsona jakina eta honekin bizi badira.
- b) Dexenteko konponketak egitea, hala nola sabaia pintatzea, hormak papereztatzea ea.
- c) Zerbitzua gauez ematea edota erabiltzaile jakinari dagozkion orduak baino beranduago.
- d) Erabiltzailearen bila etxera ez beste lekuren batera joatea, aparteko kasuren batean ez bada.
- e) Oro har, Laguntzaileari osasunaren kalterako esfortzu fisikoak eskatuko dizkieten zereginak.
- f) Gizarte Zerbitzuen departamenduak hala erabakitako guztiak.
- g) Zorrozki baztertuak geratzen dira osasun-izaera dutenak eta, oro har, etxez etxeko langileari honek ez duen espezialitatea eskatzen dioten denak.

IV. KAPITULUA

ZERBITZUA PRESTATZEA

15. artikulua. Onarpena.

Zerbitzuaren prestazioak onartzea hurrengo prozedurari egokituko zaio:

- 1. Zerbitzua eskatzea.
- 2. Txosten Soziala-Proposamena.
- 3. Gizarte Zerbitzuen Batzordeak erabakitzea.

16. artikulua. Zerbitzua eskatzea.

Araudi honetan arautzen diren prestazioak eskatzen dituzten pertsonak Udalean aurkeztuko dute dagokion eskaera Zerbitzua eskatzeko arrazoiak azalduz.

17. artikulua. Txosten Soziala.

Eskaera bakoitza Udaleko Gizarte Zerbitzuen departamenduak aztertuko du, zeinak luzatuko baitu dagokion txosten soziala soluziorik egokiena proposatuz.

18. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Batzordearen proposamena.

Gizarte Zerbitzuen Batzordeak aztertuko du ea bidezkoa den ala ez Zerbitzua prestatzea.

19. artikulua. Erabakia.

Gizarte Zerbitzuen Batzordearen proposamena Alkatzak estudiantuko du eta honek jakinaraziko dio eskatzaileari hartutako erabakia.

20. artikulua. Zerbitzua ukatzea.

Zerbitzua ukatu ahal izango da ondorengo arrazoiren batez:

- Eskatzen diren baldintzak ez betetzea.
- Beste erakunde edo Zerbitzuren batek atentitu beharra izatea.
- Dokumentazioa behar bezala ez azaltzea.
- Beste edozein kausa behar bezala fundamentatua.

21. artikulua.Eskaera berriro egitea.

Laguntza emateko beharrezko baldintza guztiak ez dituela betetzen eta eskaera ukatu bazaio, dokumentazio osoa aurkeztu ez dutenak salbu, ez du berriro eskatzeko aukerarik izango bere egoera nabarmenki ez bada aldatu.

22. artikulua.Zerbitzuaren amaiera.

Zerbitzuaren prestazioa amaitu egingo da erabiltzaileari baja emanez, tartean hurrengo kausaren bat ageri bada:

- Zerbitzurik gehiago behar ez izatea bere egoera sozio-ekonomikoa edota familiarra aldatu delako.
- Heriotza.
- Egoitzan ingresatzea.
- Beste herri batera trasladatzea.
- Zerbitzua nahi ez izatea.
- Zerbitzua ezartzeko orduan baldintzak eta konpromisoak ez betetzea.
- Erabiltzaileak baja bere borondatez hartzea.
- Beste edozein behar bezala justifikatua.

23. artikulua.Prestazio-denbora.

1.Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua 8:00etatik 20:00etara emango da. Oso kasu bereziak ez badira, ez du lanik egingo larunbat eta igandeetan.

2. Egunezko zerbitzua da, malgua.

3.Eguneko ordu-kopurua ez da 2 ordukoa baino handiagioa izango. Salbuespenez luzatu ahalko da egunean 4 orduetara.

Ordu-kopuru hau gainditzeak demostratzen du Etxez Etxeko Laguntza bere beharrentzat guztiz eskasa dela eta kasuari beste soluzioren bat aurkitu behar zaiola.

24. artikulua.Zerbitzuaren kontrola.

Zerbitzuaren kontrol, jarraipen eta koordinazioa Udalak egingo du Asistente Sozialaren bidez, prestazioa honek zainduko duelarik, onuradun bakoitzaren programa era koantitatibo eta koalitatiboan betetzeko ikuskatzailea izango delarik, Udalaren akordioaren arabera, eta aldi berean, zerbitzua prestatzen duen enpresarekiko harreman-pertsona izango da.

V. KAPITULUA

FINANTZIAZIOA

25. artikulua.Finantziazioa.

Zerbitzuaren urteko finantziazioa ondorengo iturrien bidez egingo da:

—Diputazioaren subentzioa.

—Udalaren aportazioa.

—Erabiltzailearen aportazioa.

26. artikulua. Erabiltzaileen aportazioa.

Ordenantza honetan arauturiko prezioa ordaintzera behartuak daude Zerbitzuaren onuradunak direnak, ahal duten neurrian, baremoaren arabera ezarriko den kantitatea onartuz, Zerbitzuari ekiteko beharrezko baldintza delarik.

Aportazio ekonomikoa aurkitzeko hurrengo operazioak egingo dira:

—Famili unitatearen sarrerak kreditatzen dituzten dokumentuak biltzea.

—Urteko sarrera guztien zenbatekoa aurkitzea.

—Ordenantza honetan agertzen den baremoa aplikatzea.

Sarrera konputagarriak:

a) Bizikidetzako unitatearen pentsioak eta soldadak, salbu Arta pertsonala den kasuan, hemen onuradunaren eta, hala balu, ezkontidearen sarrerak bakarrik konputatuko direlarik.

b) Ondasun higigaitzen errentak.

c) Jabego, terreno eta inmuebleen balio katastralaren gainean %3ko portzentajea (famili etxea ezik).

d) Banku-etxeetan depositoan dagoen kapitalaren interesaren ehuneko ehun gehienez ere 5.000.000 pezeta arte. Kantitate hau gaindituz gero zerbitzuaren kostuaren %100 konputatuko da onuradunaren kargura.

Onuradunak eta bere familiarrak dagokion aitopren-orrrian deklaratu beharko dute konputatzekoak liratekeen ondasunak eta sarrerak.

Deduzitu daitezkeen gastuak:

a) Etxebizitzaren alokairua ordaintzea.

b) Etxebizitzaren kreditu-mailegua.

c) Elikadura-erregimen berezia: 5.000 pezeta lehen pertsonagatik eta 3.000 pezeta gainerako bakoitzagatik.

d) Gastu estrak behar bezala justifikatuak, bere gaixotasunak edo ezgaitasunak eragindakoak izanik Gizarte Segurantzak, Munkalek eta estali ezin ditzakeenak.

e) Aparteko pagak.

f) Interesekoak liratekeen beste batzuk.

Zerbitzuaren ordu-kostua.

Aportazio ekonomikoa kalkulatzeko, zerbitzuaren ordu-kostu bezala Udal Plenoak urte horren ekitaldirako finkaturiko kantitatea jartzen da. Zerbitzuaren prestazio-kontratuari dagozkion prezioak jartzearen emaitza bezala.

Erabiltzailearen aportazio ekonomikoa.

Prozedura:

1) Errentaren modulu pertsonalaren sarrerak kalkulatzeko. Hau lortzeko famili unitatearen sarrera guztiak zati bera osatzen duten partaideen kopurua.

2) Famili unitateko partaide bakar bati indibidualki zuzendutako arta pertsonalen zerbitzu modalitateko modulu pertsonala kalkulatzeko da laguntza duen pertsonaren sarrerak konputatuz ezkontidearenekin, hau balu.

3) Zerbitzuaren kostu osoari modulu pertsonalaren balioaren arabera dagokion portzentajea aplikatuko zaio.

4) Bizikidetzako unitatearen urteko sarrerei deduzitu ahal izango zaizkie Gizarte Zerbitzuen Batzordeak halakotzat joko dituen gastu estrak (akurak, kredituak, kontratazio pertsonalak).

Sarreraren eta gastu deduzigarrien arteko diferentziaren ondoriozko kantitatea zati bizikidetzako unitateko partaideak egiteak modulu pertsonalaren sarrerak ematen dizkigu.

Erabiltzailearen aportazioa modulu pertsonal eta taularen sarreraren arabera ordaindu beharreko portzentajea da.

Modulu Pertsonal Sarrerak Ordu Kostuko Erabil. Aportazioa

541.275 arte %0

541.276-tik 618.600-arte %2

618.601-tik 721.700-arte %5

721.701-etik 866.040-arte %10

866.041-tik 1.010.380-arte %15

1.010.381-tik 1.228.952-arte %20

1.228.953-tik 1.443.400-arte %35

1.443.401-tik 2.165.100-arte %55

2.165.101-tik 3.608.500-arte %80

3.608.501-tik aurrera %100

Ordaintzera behartuak:

1) Ordenantza honetan araututako prezioa ordaindu beharra Zerbitzuaren hasieratik bertatik sortzen da, zerbitzua amaitzearekin bukatzen delarik.

2) Pagua onuradunaren kontu korrontean kargatuz egingo da.

3) Aldi bateko bajaldietan (oporrak, egoitzan ingresatzea) ordainketa suspenditu egingo da egoerak dirauen artean.

4) Justifikaziorik gabeko bi hilabetealdi ez ordaintzeak zerbitzuaren suspentsioa ekarriko du.

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren onuradunek Udalari hilero ordainduko diote erabiltzaileak aportatu behar duen kantitatea, hau bere kontuan helbideratuko duelarik.

